

Goierri tarra

343. zenbakia 2008ko ekainak 20

Josi Insausti

ADIN TXIKIKOEN BABESLEA



ARGI
OPTIKA

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

E W M E
zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

PRADA Salvatore Ferragamo EXTREME ROMEO GIGI



REKONE

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
 A. Ramirez Baigorri Dra.*

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA


ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Udako festak



Iban Urdangarin

San Antonio, San Joan edo Santa Isabelak berdin hamaika festa egiten dira santu zirenen aitzakin baina plazetan dantzaririk ez honek ematen digu min nahizta lehenago elkartzen ziren majina bat hanka arin orain zeozer egin dezagun betiko ahaztu ez dedin.

Ohitura zaharrak berrituz doaz garbi nahi nuke azaldu lehengo trikiti soinu goxoak orain lekurik ba al du? aurretik jaso degun guztia ez dezagun gero saldu irten plazara ta astindu hankak oraindik ez gaude salbu gure bultzada eman zaiogun denboran ez dedin galdu.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Aitor Aranburu.

5. Ingurugiro txokoa: EAEko espezie exotiko inbaditzaileak (I).

6. Euskara txukuntzen: Nik ere baita!

8. Errezeta: Izokin eta bakailao erroiloak zainzuri saltsarekin.
Aholkua: Haurdunaldia eta ahoko arazoak.

9. Elkarrizketa: Josi Insausti, adin txikikoen babeslea.

14. Erreportajea: Igor Mate, igeriketa sustatuz.

18. Esperientziaren leihoa: Esperientzia eskolako 7. garren promozioaren amaiera.

19. Gazte-leku: Iñaki Dorronsoro.

20. Erreportajea: Sustraiez Blai.

23. Iragarki laburrak.

24. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Aitor Aranburu

Zuberoa-Goierri auzolanean

Kako etxaldea erosi eta baserritar gazte bati lurak errentan emateko kanpaina Goierriara iritsi da.

Zuberoa

Lurralde eder bezain ezezaguna da Zuberoa. Euskal Herriko ekialdeko lurraldea, 15.000 biztanle inguru dituen, eta lurralde historikoetan txikiena izanda ere nortasun eta kultur aberastasun handia daukana: zuberera, musika, kantuak, dantzak, pastoralak, maskaradak, arkitektura bereziak eta paisaiak lurralde oso berezia egituratzen dute. Nekazaritza eta artzaintza giroko lurralde honetan dago kokatua. Kako baserria, Ainharbe herrian.

Bai laborantzak eta bai bertako industria tradizionalak krisi larriak izan dituzte, eta Zuberoak bere biztanleriaren erdia galdu zuen joan den mendean. Euskara ere, baserriari hertsiki lotuta, atzeraka doa belaunaldiz belaunaldi, azkenaldian auzolanaren bidez aurrerapausoak eman badi-ra ere. Auzolanean altxa dituzte Sohüta eta Alozeko ikastolak, AEKren gau eskola, Xiberoko Botza irratia eta "Azkorria" gazta kooperatiba.

Auzolana erabili izan dute lurak erosi eta gazteak nekazaritzan instalatzeko ere, nahiz eta baserrien eta lurren espekulazioak asko zaildu duten lan hori. GFAM Lurra elkarteak erosten ditu lurak, Lapurdi, Xiberua eta Baxe Nafarroako 1.700 pertsonen diru aportazioarekin, ondoren nekazaritzan jardun behar duen gazte bati errentan uzte aldera. 18 baserri eskuratu dituzte Kako baserriaren aurretik, eta esan daiteke lur horiek betirako merkatutik atera eta nekazaritzan aritzeko ziurtatu direla.

Kako

Baserri guztiek daukate euren historia, eta Kakorena oraintxe ari da idazten. 50 ha-tik gora dituen etxalde honetan maizterrak eraman izan du nekazaritzako martxa, eta ardi muturbeltz adardunak izan dira azken 30 urtetan. 2003. urtean erre egin zen etxea, eta Parisen bizi diren nagusiek berria eraiki zuten. 2006. urtean maizterra gaixotu eta Fred Larrañagak hartzen du bere tokia. Nagusiak ordea, etxea eta baserria saltzeko asmoa azaltzen dio.

Larrañagak ardiak, makinak eta artegia erosiko ditu, baina lurak erosteko aukerarik ez daukanez GFAM Lurra erakunde-ari aurkezten dio proiektua. GFAM Lurra erakundeak kanpaina martxan jarri eta 1.200 lagun 63 euroko parte hartzeen bidez lurak erosteko dirua lortzen du ondoren hauek Larrañagari errentan uzteko asmoarekin.

2007 urte bukaeran, eta Frantziako administrazioaren esku sartzearen ondoren beste bikote bat agertzen da, ardi lakonen ikuilu intentsibo bat jartzeko asmoarekin eta lurrez gain etxebizitza erosteko proposamenarekin. 2008an SAFER egitura biltzen da, Frantziako landa lurren salmenta guztietan bitartekari dena, beti ere nekazaritzari lehentasuna ematearen izenean. Aitzaki merkeak erabiliz ez du inoren aldeko hauturik egiten, baina jakina da Parisen bizi diren jabeek etxebizitza ere saldu egin nahi dutela. ELB eta inguruko baserritarrek deituta 250 pertsonen protesta burutzen dute. Bertan poliziak 6 baserritar atxilotu eta auziperatzen ditu, auzolanean egindako lan guztia kriminalizatuz.

Etxebizitza

GFAM Lurra jabearekin biltzen da, eta etxebizitza ere erostekotan, dena Larrañagari saltzea hitz ematen du. Etxebizitzaren prezioa, lurren ez bezala, garestia eta espekulatiboa da baina hainbat bilera egin ostean operazioa aurrera ateratzeko berau erostea adosten da. Nazio Eztatidea Guneari elkarlanerako proposamena luzatzen zaio, eta onartu egiten da. Erdiz erdi txertatzen da auzolanaren espirituan, krisian dagoen sektore bati laguntza ematen dion ekimen zehatz bezala. Gure herriaren etorkizunerako eta Zuberoako nekazaritzarentzako garrantzitsua eta ekimen hau zapuztu nahi izan dutenentzat elkartasunezko erantzuna da. Sortu berria den Azkorria gazta kooperatibarentzat ere oso garrantzitsua da, Kako delako esne ekoizle garrantzitsuenetakoa.

Bertako ardi arraza ala kanpoko, eredu iraunkorra ala intentsiboa, auzolana ala estatuaren indarra egon dira jokoan. Orain martxan dago diru bilketa kanpaina, eta garrantzitsua da denon parte hartzea, elkartzeak ematen duen indarraren adibide praktikoa eta sektore ezberdinen arteko elkartasunak daukan potentzialitatea denei erakusteko. Era berean euskal nazioaren eta nekazaritzaren biziraupena hegoaldeko jendarteak uste baino elkartuagoak daudela ikustarazteko ere balio dezake.

*Erdiz erdi txertatzen da auzolanaren espirituan,
krisian dagoen sektore bati laguntza
ematen dion ekimen zebatz bezala.*

EAEko espezie exotiko inbaditzaileak (I)

Espezie exotiko inbaditzaileak, jatorriz beste eskualde batekoak diren animali, landare edo organismoak dira, gizakiak garraiatu eta sartu dituenak, lurralde berrian finkatu eta hedatuz. Ondorio bezala biodibertsitateari, ekonomiari (nekezarritza, arrantza edo turismoa), egiturei (presak, bideak, etab) edo osasunari kalte egiten diote. Ez badu sortzen bertako inguru edo animali eta landareetan eraginik, kanpoko espeziea dela esaten da, baina ez inbaditzailea.

Ibaialde Monografikoak

Hartu beharreko neurriak:

- **Bere sarrera prebenitu.** Ontzien lastak, baratzaientzako landareak, etab. dira sartzeko ohiko bideak. Gehiago zaindu behar dira.
- **Detekzio goiztiarra.** Ugaltzea saihestu daiteke.
- **Errotik ateratzea.** Garestiagoa eta zailagoa. Bi era daude desagertzerako:
 - ✗ Produktu kimikoak erabiliz. Ingurumenerako kaltegarria izan daiteke.
 - ✗ Borroka biologikoa. Agente arrotz bat sartzek (harraparia, bizkarroia) ondorio oharrezinak ekar ditzake.

Panpa-Lezka

Izen arrunta: Panpa-lezka (*Cortaderia selloana*).

Itxura: Gehienbat landare ornamental bezala erabiltzen da. Bere infloreszentzia ikusgarriengatik bereizten da. Dioikoak dira, hots, landare bakoitzak sexu bakarra dauka, emea edo arra.

Jatorria: Hegoamerika.



Historia eta hedapena:

Europar 1775 eta 1862 artean sartu zuten. Zona hezeetan zehar edo uraren ibilbidean zehar sakabanatzen da, eta itsasoaren eragina ere ondo jasaten du. Inbasio hau Lemoizen (Bizkaia) eta Arrasate-Mondragonen (Gipuzkoa) ikus dezakegu.

Ondorio negatiboak:

- ✗ Poblazio trinkoak sortzen ditu, bertako landaredia ordezkatzuz; askotan, gainera, landare estaldura monoespezifikoa sortzen ditu.
- ✗ Bere hosto zorrotzak direla eta, atsedenekuen erabilpena mugatzen dute.
- ✗ Bere hazkundera oso azkarra denez, beste landare batzuek behar dituzten elikagai eta eguzkia jasotzen ditu.



Poblazio trinkoak sortzen ditu, bertako landaredia ordezkatzuz; askotan, gainera, landare estaldura monoespezifikoa sortzen ditu.

JAKIN BEHARREKOAK

Landare inbaditzaileei buruzko hitzaldia eta ibilaldia Ordizian, ekainak 19, 20 eta 21. Ostegunean hasiko da 7etan Barreran hitzaldia. Eusko Jaularitzako eta Aranzadiko hizlariak egongo dira, larunbatean Oria ibaian ibilaldia.

Espainiako ikerlari ezberdinak, Aznalcollareko hondamendiaren 10. urteurrenean, kexu dira ez direlako aurre hartze neurriak martxan jarri horrelako hondamendiak ekiditeko. Kupre meategiak, Boliden Apirsa (Sevilla), 63 km ubide eta 4.634 hektarea kutsatu zituen. bestalde, enpresak garbitzeko gastatu ziren 200 milioietatik ez du euro bakarra ordaindu.

Biodibertsitatearen interpretazio zentroa Busturiako Madariaga dorrean. XV. mendeko eraikuntza berri da honako helburuak garatzeko: Euskal Herriko bioaniztasunaren ikerketa, sentsibilizazioa eta heziketa.

WEB GUNEA

www.euskalnature.net. Gozatu naturaz eta zientziaz euskaraz. EHU Bizkaiko campusean biologia ikasketak burutzen ari ziren sei lagunek sortu zuten 2007. urtean. argazki galeria, landarrek gako dikotomiko birtuala. Animalia, landare eta onddoen zerrenda, sailkapenak eta natura eta zientzia inguruko albisteak aurki ditzakegu.

Nik ere baita!

Maizpide
euskaltegia

Gaur egun ez dira gutxi izenburuan agertzen dena bezalakoak hitzetik hortzera erabiltzen dituzten goierritarrak. Badirudi “**ere**” hori erabili behar dugunean hamaika aukera dugula, dena dela zilegi... eta ez gara konturatzen forma horietako asko eta asko oso berriak direla, gure aitona-amonen garaian existitzen ez zutenak. Hona hemen izenburukoaren “koadrilako” beste batzuk:

- ✗ Jokin **ere** bai agertuko da (*oker*).
- ✓ Jokin **ere** agertuko da (*zuzen*).
- ✗ Baita Arantxa **ere** joango da (*oker*).
- ✓ Arantxa **ere** joango da (*zuzen*).
- ✗ Zuk **ere** daukazu (*oker*).
- ✓ Zuk **ere** badaukazu (*zuzen*).
- ✗ Pelloren gurasoak ez dira etorriko... eta gure osaba-izebak ezta **ere**! (*oker*).
- ✓ Pelloren gurasoak ez dira etorriko... eta gure osaba-izebak **ere** ez! (*zuzen*).
- ✓ Pelloren gurasoak ez dira etorriko... eta ezta gure osaba-izebak **ere**! (*zuzen*).
- ✗ Ataunen **ere** bai ikusi zuten pelikula hori (*oker*).
- ✓ Ataunen **ere** ikusi zuten pelikula hori (*zuzen*).
- ✗ Ibon joango da **ere** (*oker*).
- ✓ Ibon **ere** joango da (*zuzen*).
- ✗ Ere bai dakit non jaio zen! (*oker*).
- ✓ Non jaio zen **ere** badakit! (*zuzen*).
- ✗ Juanjo, ezta! (*oker*).
- ✓ Juanjo **ere** ez! (*zuzen*).
- ✓ Ezta Juanjo **ere**! (*zuzen*).

Noiz eta nola erabili behar dugu txukun egoteko?

‘Ere’ esaldiaren barruan

Azpimarratu nahi dugun elementuaren ondoren joango da:

- ✓ Antonio **ere** joan zen atzo Ordiziako azokara... eta Luxio eta Xinforo **ere** joan ziren.
- ✓ Antonio **atzo ere** joan zen Ordiziako azokara... eta datorren asteazkenean **ere** joango da.
- ✓ Antonio atzo Ordiziako azokara **ere** joan zen... eta Beasaingora **ere** joan zen bezperan.

Aditz trinkoekin (osagai bakarreko aditzekin) “Ba-“ txertatu edo sartu beharko dugu:

- ✓ Gabino **ere** badatorkigu (*zuzen*).
- ✗ Gabino **ere** datorkigu (*oker*).
- ✓ Zuk **ere** baduzu txokolatea motxilan (*zuzen*).
- ✗ Zuk **ere** duzu txokolatea motxilan (*oker*).

Gu oso gizon serioak garela esatea ere!



Aditzari erreferentzia eginez gero, “egin” sartu beharko dugu:

- ✓ Erre ez ezik, jan **ere** egin genuen arkumea.
- ✓ Ikusi **ere** ez haut egin, Donato!

Ere bai / ere ez; baita... ere / ezta ere

Aditza zertan erabili ez badugu (sartu gabe ere entenditzen delako), **ere... bai** edo **ez** osagaiei lotuta joango da, esaldia baiezkoa edo ezezkoa den. Baiezkoa: **X ere bai** edo **baita X ere**. Ezezkoa: **X ere ez** edo **ezta X ere**

- ✓ Antonio **ere** joan zen atzo azokara... eta Luxio eta Xinforo **ere** bai (*zuzen*).
- ✗ Antonio **ere** joan zen atzo azokara... eta **ere** bai Luxio eta Xinforo (*oker*).
- ✓ Antonio **ere** joan zen atzo azokara... eta **baita** Luxio eta Xinforo **ere** (*zuzen*).
- ✗ Antonio **ere** joan zen atzo azokara... eta **baita ere** Luxio eta Xinforo (*oker*).
- ✓ Antonio **atzo ere** ez zen azokara joan... eta joan den astekora **ere** ez (*zuzen*).
- ✗ Antonio **atzo ere** ez zen azokara joan... eta **ere** ez joan den astekora (*oker*).
- ✓ Antonio **atzo ere** ez zen azokara joan... eta **ezta** joan den astekora **ere** (*zuzen*).
- ✗ Antonio **atzo ere** ez zen azokara joan... eta **ezta ere** joan den astekora (*oker*).

Aditzak ere, jokatu gabe dagoenean behintzat, beste edozein osagaik bezalaxe hartuko du **ere**:

- ✓ Donostiako zinemaldian Unax Ugalde aktorea ikusi nabi dut... eta **baita** “jan” **ere**!
- ✓ Ez dut Bush-ekin hitz egin nabi... eta **ezta** agurtu **ere**!
- ✓ Ez dut Bush-ekin hitz egin nabi... eta agurtu **ere** ez!

Baita / ezta

Noiz erabiliko ditugu? Erreparatu adibideei:

- ✓ Xinforo etorriko duk afarira, eta bi? **-baita!**
- ✓ Hire gizona ez dun etorriko afaria, eta bi beu? **-ezta!**

Ere... beste kasu batzuetan

1. Indartzeko egokia baino egokiagoa da:

- ✓ Ez dugu ezer esan.
- ✓ Ez dugu ezer **ere** esan.
- ✓ Ez dugu ezertxo **ere** esan.
- ✓ Manoliren etxean afaldu genuen, ederki afaldu **ere**!
- ✓ Jesusenak esan nizekion, esan **ere**!

2. Kontra egiteko ere erabiltzen da:

- ✓ Sasoiko ez **banengoen ere**, Zegama-Aizkorri maratoin hartu nuen parte.
- ✓ Merkea izanik **ere**, ez dut erosiko.
- ✓ Belauniko eskatuagatik **ere**, ez diot mesede hori egingo.

3. Harridura adierazteko ere aproposa da:

- ✓ Dedio, Demetrio, hire emaztearekin oheratu nintzela pentsatzea **ere**!
- ✓ Amona Martinak hori esatea **ere**!
- ✓ Nik horri barkamena eskatu? Ezta pentsatu **ere**! (**baita** zera **ere**!)

nazaretzentroa

N14

MATRIKULA IREKIA

DATAK **BATXILERGOA** - Ekainak 30etik Uztailaren 4rarte

LANBIDE HEZIKETA - IZEN EMATEA - Ekainak 2tik 13ra

Batxilergoa

- Giza eta Gizarte Zientziak
- Natura eta Osasun Zientziak

Masterrak

- Aplikazio Informatikoen Garapenean Masterra

Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak	Ziklo Ertainak
■ Administrazioa eta Finantzak	■ Administrazio-Kudeaketa
■ Informatika Sistemen Administrazioa	■ Merkataritza
■ Informatika Aplikazioen Garapena	■ Sistema Informatikoen Ustiapena
■ Merkataritza Kudeaketa eta Marketina	
■ Nazioarteko Merkataritza	
■ Idazkaritza	

Ikasgaiak euskaraz, gaztelaraz eta ingeleraz ematen dira

kutxa | Lankidetzako Gizarte Ekintza

Aldakonea, 36 · B° Egia
 20012 DONOSTIA
 Tel. 943 326666
 Fax. 943 326384
 nazaret@nazaretzentroa.com
 www.nazaretzentroa.com

Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558

Poltsikoko telefonoa: 616 698 288

ERAKUSKETA:

Lorategiko eta terrazako altzariak, kolore ezberdinetako aluminio lakatuan

- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan


Zubi-Erreka Industrialdea, 42 LAZKAO

toldosagustin.com

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

SUKALDEAN

Izokin eta bakailao erroiloak zainzuri saltsarekin



Miren Cob Gurrutxaga
Ulaia jatekoa
Lazkao

Osagaiak, 4 lagunentzat:

- 16 izokin xerra (finak)
- 16 bakailao xerra (finak)
- 12 zainzuri, ahal bada freskoak
- 300 gr. esne
- 2 patata eder
- Olio eta gatz

Zainzuriak erditik ebaki eta puntak bigundu arte egosi ura, gatz eta olio pixka batekin.

Kazola batean zainzuri txortenak, patatak eta esnea patatak bigundu arte egosi. Gatz puntua eman eta irabiatu ondoren txinotik pasatu.

Ohol batean izokin xerrak zabaldu, gatzatu eta gainean bakailao xerrak jarri behar dira. Horiek biri-

bilduz erroiluak osatu eta zotz batekin eutsi. Ondoren irinetan pasatu eta olio ugarran frijitu.

Mahaieratzeko, plater batean zainzuri puntak abaniko moduan zabaldu, beste aldean erroiluak jarri eta gainetik salta bota.

Beste aukera bat da saltsari, aurretik, bi arrautza gorringo gehitu eta bukaeraren platera labean gratinatazea.

Haurdunaldia eta ahoko arazoak

AHOLKUA

Haurdunaldian gorputzak aldaketa hormonalak izaten ditu, adibidez, diabetesa, botagurea, tensio baxua, anemia eta ahoko gaixotasunak ere. Hortaz, oso garrantzitsua da norberak jakitea zeintzuk diren sintomak eta horrela konponbideren bat aurkitzea.

Entzietako gaixotasunak

Gorputzaren aldaketa hormonalen ondorioz, entziek sensibilitate handiagoa eduki dezakete hortzetako plakarekiko, hau bakteriez osaturiko geruza eranskor bat da eta hortzen gainean formatzen joaten da. Honek ez badugu egunero hortzetako zepiloarekin kentzen, gingibitisa (entzietako inflamazioa) sortu daiteke.

Horrez gain, aurretik gingibitisa baduzu, haurdunaldian arazoa okertzen joango da piorrea agertuz eta hortzak galtzeraino iritsiz.

Nola jakin entzietako gaixotasuna daukagula?

- Entzia sensibleak, hazita edo gorrituta.

- Odola hortzak garbitzen ditugunean.
- Arnas usain edo ahoko zapora txarra edukiz.

Hortzetako kariesa

Haurdunaldian, hortzetako kariesaren arriskua gehitu egiten da. Hau, botagureen azidoen eta janari gozoen kontsumoaren ondorioz izaten da nagusiki.

Elikadura

Kontutan eduki behar da umearen janari iturri bakarra zure gorputza dela. Osasunarentzako saiatu behar duzu kalzio duten jana jatea, horrela hezurak eta hortzak hobeto edukiko dituzu. Horrez gain, gogoratu umearen lehenengo hortzen osaketa haurdunaldiko hirugarren hilabetearen hasieratik dela, hortaz, zure elikadura zaintzen baduzu zure umearen hortzak eta entziak osasuntsuagoak izango dira.

Nola zaindu

Lehen aipatutako arazoak ez sortzeko, oso garrantzi-

tsua da hortzak oso ondo garbitzea fluorra daukan pasta bat erabiliz.

Aipatu baita ere haurdunaldiaren lehengo hiru hilabeteetan, saiatu behar dela ahoko tratamenterik ez egitea, umeak arrisku handia baitu bolada honetan.

Erradiografiaren gaia oso eztabaidatuta egon da. Larrialdi bat daukagunean egiten dira, baina bestela, hobeto da lehen aipatu bezala, lehengo hiru hilabeteetan ez egitea. Hala ere esan, gaur egungo erradiografi digitalekin irradiazio dosia oso txikia dela eta ez duela arazorik ematen, orain arte ezagutu ditugun sistemekin ez bezala.

Laburpena

Aipaturiko guztiarekin beraz, gomendagarria da haurdun geratzeko asmoa izanez gero, aurrez dentistarengana joatea beharrezko tratamenduak egiteko. Hortaz lortuko dugu ahoko arazoak saihestea eta "ume bat izan eta hortz bat galdu" dioen esaketa ez betetzea.



Nerea Larrea Oiarbide
Odontologo zirujaua
Beasain

Josi Insausti, adin txikikoen babeslea

"Normalean atzerrikoetaz hitz egiten da, baina Foru Aldundiak babesa ematen dien haur gehienak, bertakoak dira"



Josi Insausti beasaindarra, Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazte Zerbitzuaren zuzendaria da. Azkenaldian gero eta buruhauste handiagoa ematen dieten gaia

dute eskuartean: adin txikikoei babesa ematea. Gero eta gehiago dira Foru Aldundiaren babesa behar duten adin txikikoak, atzeritik etorritakoak nahiz Gipuzkoa bertakoak.





ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Iñusti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZEHU. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

Haur, nerabe eta gazte zerbitzuaren ardurak asko dira. Adibidez, gero eta gehiago diren adin txikiko etorkinak.

Babesa behar duten adin txikiko asko iristen ari dira. Horrela jarraitzen baldin badugu, marka guztiak hautsiko ditugu. Momentu honetan, 185 adin txikiko etorkin ditugu; baina Gipuzkoa bertakoak askoz ere gehiago dauzkagu. Normalean atzerrikoetaz hitz egiten da, baina Foru Aldundiak babesa ematen dien haur gehienak, bertakoak dira. Iaz, 250 kanpotar iritsi ziren, baina bertakoak, 1.100 dira, programa ezberdinetan.

Atzerrikoekin jarraituz, hauek gero eta gehiago dira. Zein bide jorratzen duzue hauekin?

Batetik gertatzen ari zaiguna da, kopurua asko igo-tzen ari zaigula. Baina, lehenik gauza bat esan behar da: askotan leporatzen zaigu, zergatik hartzen ditugun gure gain, zergatik harrera ematen diegun... Morala alde batera utzita, legeak behartzen gaituelako. Hau da, atzerriko haur bat azaltzen zaigunean edo Ertzaintzak norbait lokalizatzen duenean, guk harrera ez badiogu ematen, niri instrukzio penal bat irekitzen didate; legeak halaxe behartzen gaitu.

Zein adinetako gazteak etortzen dira?

Egia esan, aldaketak egunero egoten dira, baina, orain arte adina asko jaisten ari zen. Orain dela gutxi arte, 10-12 urte artean etortzen



“Gehienak gurasoak bultzatuta etortzen dira”

Gurasoak bultzatuta edo behartuta etortzen dira, ala beraiek nahi dutelako?

Gehienak gurasoak bultzatuta. Orduan, hemengo gurasoei hausnarketa egiten jar daitezene esan nahi nieke. Beraien egoera ekonomikoa ondo ez balego, beraien semea bidali, nora ez dakitela, nola ere ez, baina iritsi dadila leku batera bere egoera hobetzeko, eta bere egoera hobetu ondoren familiarena ere hobetzeko... jar daitezela egoera horretan. Alde horretatik, moralki betebeharrak batzuk ere badauzkagu.

Azkenean, zer gertatzen ari da? Zergatik iristen zaizkigu? Hemen arrazoi bat garbi ikusten dut: Lehenengo munduak Hirugarren munduarekin egiten ari garenaren ondorioa oraintxe ordainatzen ari gara. Bestetik, baita ere, Marokkoneko momentu honetan barne emigrazio handia dago, batez ere herri txikietatik. Espainiako hainbat enpresa irekitzen ari dira. Enpresa askotan, emakumeak dira langileak. Goizetik gaueraino lanean baldin badaude, magrebier kultura ezagututa, familia mantentzen, bideratzen eta gidatzen dutenak, emakumeak dira. Lanean baldin badaude, desekstrukturazio pixka bat dago. Bestetik, lan karga dute-nean, haurrak kontratatzen dituzte. Beraz, horrek ere sortzen duen arazoa, orain hemen ordaintzen ari gara. Familia batek erabakitzen duenean bere semea, berdin 10, 11, 12, 13, 14 urtekoa, beste leku batera bidali behar duela, eta berdin zein egoeratan... nik uste dut nahikoa gogorra dela gurasoentzat.

Denontzat gai berria da. Atzeritik datozkigun umeak in-migratio orokorraren berbera da. Helduen in-migratioa ere asko igo da. Normala da umeena ere iristea. Eta adi-tuek diote, hau ez doala beheraka.

Iristen diren gaztetoek laguntza psikologikoa behar izaten al dute?

%10 horretan, han Marokon, beraiei kontatu dutenak, ez dauka zer ikusirik hemen aurkitzen dutenarekin. Tartean baita ere, egin duten ibilbidea nahikoa luzea da eta egin-dako ibilbide horretan pasatu dituzten egoerak ere oso go-gorak izan dira. Azkenean, horrek zorabioa eta nahaske-ta sortzen ditu. Hori dena lantzen dugu. Batzutan emaitzak lortzen ditugu, eta beste batzutan ez. %3a izaten da lortzen ez duguna, zer egin ez dakigula gelditzen garela. Eskain-tzen zaizkien errekursoak ere aprobetxatzen ez dituzte-nak dira, sistema bera ez dutelako barneratzen. Hor, epai-leek parte hartu beharra daukate. Eta askotan parte hartze hori nahiko eskasa izaten da.

Gazte hauekin harreman zuzena duzue, zein sentipen dituzte?

Ezin dutela lanik egin eta baztertuta egiten ditugula ikus-ten dute. Beldurra daukate beraiek ere. Binaka eta taldeka ibiltzen dira eta zergatia galdetuta, beraiek badakitela ez direla ondo onartuak eta beldurra sentitzen dutela diote, eta horregatik taldean ibiltzen direla.

Normalean ez dugu dena jakiten. Baina pasatu dituz-ten egoerak oso gogorak izan dira. Alde batetik, kalean zehar ibilitakoak, bestetik, hainbat pertsonen esku etor-tzen dira eta jipoituak izan dira, egoera gogorak pasatu dituzte... Eta umeak dira. Ume haziak, baina umeak. Ho-na iristen direnean, beraien familietatik ere presioa jasaten dute. Nola bidalikoa dute dirua, hemen lanik egin ezin ba-dezakete. Horretan, gu tartean sartzen gara eta gehienekin prozesua ondo bideratzen dugu.

Hemen bertakoek ere, helduek, erabili egiten dituzte, badakitelako diruaren beharra daukatela, beste ekintza arriskutsuak egiteko. Hemen tartean elementu asko sar-tzen dira. Guri gainera, zailtasunak sortzen zaizkigu beste elementu hauek tartean sartzen direnean.



ziren; orain berriro igotzen hasi da, 14-16 artean; neska bat ere izan dugu, momentuan ez zaigu neska gehiago iritsi.

Zergatik aldaketa hauek? Guk ere ez dakigu, oso zaila da jakitea. Aurrerantzean zer izango den? Hori ere ez dakigu. Irsten zaigunari harrera eman beharra dauka, baina ez dakigu nor iritsiko den, zenbat iritsiko diren eta zein motatakoak iritsiko zaizkigun.

Jatorriari dagokionean, nongoak dira gehienak?

Gipuzkoan, momentu honetan, %90, magrebiarra da. Gipuzkoa izango da, lurralde bakarrenetakoa, %90 magrebiarra mantentzen duena. Espainia mailan, hainbat lurraldetan, aldaketak nabaritzen hasi dira: ez hainbeste magrebiar, eta Asia aldetik ere iristen hasiak dira, Errumania, Bulgaria, Ukraina... alde horretatik. Datorrena hartu beharra daukagu.

Zertara etortzen dira eta zer aurkitzen dute?

Normalean, gehienak, edo denak, lan egitera iristen dira. Baina hemen hezkuntza

sistema beste era batekoa da. 16 urtera arte derrigortuta daude hezkuntza sisteman egotea; eta 16 urtetik aurrera, Zip eta beste programa batzuen bitartean, lan heziketa prozesuan sartu gaitezke. Eta hori izaten da lehenengo txokea eta barneratu behar dute hemengo sistemak hango sistemarekin ez daukala inolako zerikusirik. Marokon, 12 urterekin lana egin dezakete eta hori hemen ez da posible.

Irsten zaigunetatik %10a, hainbat arazo dituzten haurrak dira. Beraien familietatik nahiko ume edo gazte apartatzen dira, erlazioa galtzen dute eta nahiko egoera gogorretatik datoz. %10 horietatik, esan dezaket, %3arekin, nahiz eta baliabide guztiak jarri, ez daukagula zereginik. Arazo larriak dituzte, sistemak ez dituzte onartzen, nahiko gaizki dauden haurrak dira. Eta hauek izaten dira normalean, kalean arazoak sortzen dituztenak, eta normalean jendea hauengan nahiko fijatzen da.

Nik bakarrik esan deza-

“Haur jaioberriak hartzeko harrera familiak eskatzen hasi gara”

Adin txikiko 1.100 gipuzkoarri babesa ematen diezuela aipatu duzu. Zein arazo dituzten haurrak eta gazteak dira?

Arazoak bizitzen dituztenak dira hauek. Tratu txarrak, sexu gehiegikeriak... txikiagoak eta handiagoak... eta horien kopurua ere goraka doa. Eta 1.100 horietaz ez da bati hitz egiten. Baina Gipuzkoako beste errealitate bat da. Haurren errealitatea nahiko gogorra da, orduan, komunikabide gehienak, kanpotik datozenengan fijatzen dira. Baina guk adibidez, bailaran, bertako hainbat ume dugu babes atalean. Eta gogorra egiten da, kalean zoazenean, gurasoak ezagutu egiten dituzu... Normalean pentsatzen da, erdi mailako edo familia bajukoak direla, baina ez da horrela.

Betiko galdera da: geroz eta gehiago daude, ala geroz eta gehiago salatzen dira?

Ahalik eta azkarren detektatzen saiatzea da gure lana eta udalekin-eta lana egiten dugu. Azkenean, gero eta gehiago salatzen dira edo detekzioa lehenago egiten da. Zaila da eta oraindik asko gelditzen da egiteko.

Ikusi nahi ez den errealitatea da. Eskoletatik oharrak pasatzen dituztenean, irakasleek kezka askorekin egiten dute, badakitelako gurasoei arazoak izan ditzaketela. Baina hau zuzendaritza honen lana.

Zein babes programa erabiltzen dituzue?

Bertakoekin, sistema asko dauzkagu. Alde batetik, familiekin lantzen ditugun programak. Gehienak programa horretan daude. Bestetik, babes zentroak ditugu. Eta azkenik, harrera familiak, haurrak familietatik ateratzen ditugunean. Beste aukerarik ez baldin badago, guk hartzen dugu tutela eta babes zentroetan edukitzen ditugu.

Babes zentroak mota ezberdinak dira: lehen harerratakoak, erresidentzialak... Eta ume asko eta asko daude.

Orain kezkatzen hasiak gara, jaioberrien kopurua asko igotzen ari delako. Gurasoen artean arazoak baldin badaude... ospitaletik astero ia haurren bat ateratzen dugu, amak borondatez uzten duelako, arazoak dituztelako... Haur jaioberriak hartzeko harrera familiak eskatzen ari dira. Hori orain arte ez da ohikoa hemen.

Susto batean bizi gara. Gogorra da. Beti egoera berriak azaltzen dira. Erabaki bat hartzen duzunean, beste arazo batzuk daramazki eta gogorra da bai.

ket, nire aldetik nahiko saiakera egiten dugula bai epaile sistemarekin eta beste sistema batzuekin, haur hauekin neurriak har ditzaten. Hau da, erreforma zentroetara pasatu eta abar. Askotan erantzunik ez dugu jasotzen eta azkenean beti izaten da galdera: Foru Al-

dundiak beregain hartu behar ditu haur kopuru txiki hau ere? Legeak behartuta bai. Epaileak eta fiskaltzak, hartu behar diren neurriak benetan har ditzatela da betiko saiakera.

Komunikabideetan normalean, kasu horiek azaltzen dira.

Baliabide sarea

“Momentu honetan, Beasainen, Lazkaon eta Gabirian daude etorkin adin gabeak. Idiazabalen eta Zaldibian, momentuan ez dago haurrik, programa bereziagoa gauzatu nahi baitugu leku horietan: gurekin sisteman prozesu guztia ondo gauzatu dutenak eta emanzipazio garaian daudenak. Azterketa sakon bat egiten ari gara, baliabideak martxan jartzen ere eta helburua da, datorren urte hasierarako, sare bat antolatuta edukitzea. Orain arte ere, nire arazoa izan da, errekurtsorik ez nuela. Foru Aldundia esfortzu handia egiten ari da baliabideak gauzatzeko eta horrek aukera emango dit sare bat osatzea, bai atzerrikoentzat, bai bertakoentzat”, dio Josi Insausti beasaindarra.



Niri egia esan, pena handia ematen dit, kopuru txiki batek nola baldintzatu dezakeen beste taldearen interzio prozesu guztia. Azkenean, herritarrak nahiko estigmatizatu egiten du atzeritar kopuru guztia. Zaila da herritarrei konprentzio hori eskatzea baina egoera dagoena da, nik ezin dezaket besterik esan. Hori bai, hori kontutan izanda ere, beste erakundeek askotan erantzunik ematen ez dutela-eta, eta nik ez dut baloia beste teiltatura bota nahi, beraiek ere hartu behar dituzte hartu behar diren neurriak, ikusita beste taldeei eta beste haur eta gazteei sortzen dizkien arazoak, benetan

kezkarriak direla. Azkenean, hemen beti arriskua izaten da, sistema guztia hankaz gora jar daitekeela kopuru hain txiki bategatik.

Hori kontutan izanda ere, Foru Aldunditik baliabideak martxan jarri ditugu. Gipuzkoan zentro berezi bat ireki dugu, tratamendu berezi bat emateko, justu arazoak dituzten eta ematen dituzten haur hauentzako. Orain emaitzak momentuan ez dira ikusiko baina epe ertainera emaitzak izango dira. Eta herritarrak behintzat, lasaitu daitezela.

Bertakoekin, adin berekoekin, harremana izatea bultzatzen al da?

Guk batez ere, inserzio pro-

zesuan, guk hemen ditugun errekurtsioak beraiei ere eskaini egiten diegu. Alde batetik, derrigorrezko hezkuntzan sartzen ditugu eta horretan harremanak sortzen dira. Bestetik, aisi sisteman normalizatzen ditugu, baina hor arazoak sortzen dira. Herritarren nola edo hala baztertze hori hor dagoelako. Zailtasunak sortzen zaizkigu normalkuntza prozesu horretan.

Bazterketa, haurrena edo helduena da?

Askok helduena. Haurrek azkenean helduengandik jasotzen dutena jartzen dute praktikan. Adibidez, etxeak irekitzeko arazoak ditugu. Nola ez. Auzotarrek hauei

buruz jasotako irudia halanolakoa da, eta arazoak sortzen dira. Nik esan behar dut, Gipuzkoan zehar ez dudala atzerrikoekin bakarrik lan egiten, bertakoekin ere bai. Eta azken batean, zentroak behar-beharrezkoak izango dira. Eta nik askotan arazoak jartzen dituzten horiei esango nieke, beraien seme-alabentzako babes programaren baten beharra izango balute, nik neronek jarri beharko nukeela. Orduan, kontu izan dezagun, haurrekin eta nerabeekin izaten dugun jarrera, bai atzerrikoekin, bai gipuzkoarrekin. Nik ardura pixka bat eskatzen diet herritar guztiei, jakinda, kezka sor-

tzen dituela. Baina baita, datu bezala esan behar dut, atzerriko umeak 2007an 250 izan zirela guregana iritsi zirenak eta babes sisteman jarri zirenak; eta ume gipuzkoarrak, 1.100 dira. Desoreka non dago? Gipuzkoako egoera egoera bonanza honetan, beste errealitate bat ere badagoela. Azkenean, bai kanpokoak eta bai bertakoak, umeak dira eta gainera behar berezi batzuk dituzten umeak. Eta askotan, hainbat egoera larritik pasatutakoak. Eta honetarakoxe dago nik zuzentzen dudana babes sistema eta horretantxe jarraituko dut. Bai, onartu beharra daukatu %10ak arazoak ematen dituela.

Beste %90aren aurrera-pausoak ikusteak poza emango du ezta?

A din txikiko atzeritar gehienak, gurasoak bultzatuta etortzen dira.

Lehen zaila zen ikustea, lehen gehienak 16-17 urtekoak baitziren eta 18 urterekin babes sistema amaitu egiten zen. Orain gehiago ikusten dugu, txikiagoak iristen joan direlako. Horiek ikusten dituzu inserzio prozesu batean sartuak, batzuk lanean, hemen bizitzeko asmoarekin, bikotea ere badutela... Hor ikusten duzu, gauzatzaren ari garen sistema bere frutuak ematen doala. Baina, askotan, bakarren bat okertzen da, hemen bertan gertatzen den bezalaxe.

Kontzientziazio soziala lortu behar dugu denon artean. Hainbestetan ateratzen dira... Zenbat denuntzia zeuzkan gure babesaren barruan denuntzia gehienak zeuzkanak? Bakar batek, 51. Datu horrek ematen du, denek egiten dutela, baina benetan, pertsona bakarra da. Zein mezu zabalitzen denaren arabera, ba-

bes sistemak, bai kanpokoena eta bai bertakoena, porrot egin dezake. Mezu horiek pixkanan-pixkanan desagertzen doaz zorionez. Zeren azken batean, kalte- tuak, umeak dira. Eta berdin zait, hemengoak ala kanpokoak. Kaltetuak umeak dira.

Goierri, Segurako kasua daukagu: azkeneko egunean, aterpetxeari sua eman zioten...

Horrelakoak ere tokatzen dira, zoritxarrez. Egia esan behar da, ez dela normala horrelako zerbitu gertatzea. Baina alderantzizkoa ere esan behar dut. Segurakoa, arazoak zituen ume batek egin zuen. Behin baino gehiagotan ohartarazita zeuden epaileak, ume horrek arazo larriak zituela eta ez zuela sistemarik onar-

tzen. Teknikoki eta nire arduratik, erreforma zentru bat beharko lukeela ikusten genuen, beste sistema bat daramakitelako. Azkenean erreforma zentrorra, egindakoa egin zuenean pasatu zuten. Segurakoak nahiko istilu sortu zituen baina esan behar dut, han zeuden 16 gazte, Beasaingo Ertzain etxean azaldu zirela, eskatuz, mutil hori zentro horretatik ateratzeko. Baina nik ezin nuen zentrotik atera, derrigortuta nengoelako harrera bat ematera eta epaileei-eta eskatu zitzaizaien neurri bereziak hartzeko. Hartu zituen, baina berandu. Diputazioa hezitzen saiatzen da eta ezin ditu zigortu. Epaileek zigortu behar dituzte.

Ni gehiago kezkatzen nau, Igeldon gertatu zenak. Harrera zentro bat ireki behar nuen eta han helduek eman zieten sua etxeari.

“Nerabeen politika lantzen hasi beharrean gaude”

Arazoak dituzten gazteetaz hitz egin dugu orain arte. Gainera gazteen egoera zer moduzkoa da?

Gipuzkoako gaztedia, azkeneko prospekzioaren arabera, zoriontzekoa da. Zerbitzutik betidanik nabil nola borrratu daitekeen gaztedia problematikoa ala gaztediaren problematika esaten dena. Ea nola borrratu dezakegun, egoera nahiko onean dago eta. Arazoak ere badaude, egia da.

Emanzipazio aldetik, adibidez, adina ere nahikoa altua da. Zergatia? Langabezia ez dago hainbeste, baizik lan baldintza, soldatak, dira arazoa. Milaeurismoa dago. Eta etxeen prezioak. Foru Aldunditik hori nahiko kanpo gelditzen da. Baina bai, asmoa da, erakundearen artean sarea sortzea, hori kontutan hartzeko.

Zein da Haur, Nerabe eta Gazte Zerbitzutaren egitekoa?

Udalekin lan zuzen bat egitea. Besteei laguntzeko tresna bat gara. Momentu honetan, nik daukadan sistema, gaztediari dagokion politikak gauzatzeko da, batez ere udalei laguntzea benetako gazte planak edo gazte politikak garatzen has daitezen edo pentsatzen has daitezen. Horretarako aholkularitza zuzena ematen diegu prest dauden udalei. Esan behar dut, momentu honetan, hemendik egiten dugun udalekin, gazteen % 70-75era iristen garela, udalen bitartez. Zuzenean hainbat elkar-terekin lan egiten dugu, azken batean, hemen egiten dugun politika elkarlan batean egin behar delako. Gipuzkoako Gazte kontseiluarekin hitzarmena daukagu, beraiek bere barnean elkartzen dituztelako gazte talde gehienak.

Foru Aldundi bezala gauzatu ditzake programa batzuk, estrukturalak (aisia, informazioa...) baina momentu honetan erakunde baliagarriena Udala da, gurasoak, nerabeak eta gazteak gehiago identifikatzen baitira udalarekin. Zorionez gainera, udalak ere barneratzen hasiak dira ezin dutela testimonialtasun batean ibili. Urtean zehar ekintza puntual batzuk egin eta kitto. Ez, barneratzen hasiak dira seriotasunean hartu behar direla gauzatu behar diren politikak bai nerabeentzat, bai haurrentzat, bai gazteentzat.

Aurrera begira, zein helburu duzue?

Momentu honetan, behar eta eskaera berria eta sendoa, batez ere, nerabeen politikak garatzea da. Orain arte, normalean, haurretaz edo gazteetaz hitz egiten zen. Eta nerabeak hortxe gelditzen ziren. Gurasoen eta udalen aldetik, ikusten hasia da behar bat badagoela eta gu horretantxe antolatzen hasiak gara.

Eta zer landu? Batez ere, aisi hezitzailea, osasun arloan ere datu batzuk badaude, ez oso kezagarriak, baina arriskuak markatzen hasiak direnak. Osasun aldetik, kontsumoak daude. Eta horri lehenbailehen aurre egiten ez badiogu, gero nahiko berandu izango da. Gure lana, batez ere, prebentzioaren aldetik joango da.

Azkenean nire helburua, kontinuo bat egitea da. Ikusita, babes sistema nire ardurapean dagoela, normalizatu ere nire ardurapean, haur, nerabe eta gazte kontinuo egitea.



Igor Mate, Gipuzkoako Igeriketa Federazioaren kudeatzailea:

Berrantolaketaren bidez, igeriketa sustatuz

Gipuzkoan, igeriketa arloan, aldaketa handiak izaten ari dira azken zortzi urteotan. Aldaketa hori aurrera eramaten ari denetariko bat, Igor Mate beasaindarra da. Bera da Gipuz-

koako Igeriketa Federazioaren kudeatzailea. Poliki-poliki, ekimen ezberdinak ari dira burutzen, eta beti ere helburu nagusia, igeriketa birrantolatuz, igeriketa sustatzea eta bultzatzea da.



JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Santa Barbara Bidea z/g, URRETXU Tel./Faxa: 943 721413- 943 721403
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia. A-D ereduak.

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✕ Ospitaleko erizain laguntzailea
- ✕ Zaharren egoitzetan
- ✕ Eguneko zentruetan
- ✕ Lehen artapenetako laguntzailea
- ✕ Kontsulta pribatuetan
- ✕ Hortz-kliniketan laguntzailea
- ✕ Gaixoen zaintza



AURREMATRIKULA:
Ekainaren 2tik 13ra
(biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:
Ekainaren 30etik
uztailaren 4ra
(biak barne)

Gipuzkoako Igeriketa Federazioak, 2000. urtean, profesionalizatzeko prozesua hasi zuen. Igor Mate beasaindarra bulegorako fitxatzea izan zen lehenengo lana. Il-do horretatik, zortzi urteotan, Gipuzkoako igeriketak aldaketa handia izan du, beti ere, beste antolaketa batekin, igeriketa sustatzeko eta bultzatzeko helburuarekin. Igor Matek, orain arte egindakoa eta dituzten asmoen berri eman digu.

Bardulia

2003. urtean, Bardulia Kluba sortu zuten, Gipuzkoako klub gehienek bat eginda. "Asmoa zen, Espainian jokatzeko ziren txapelketetan parte hartzea klub berri horrekin eta etxeko txapelketa guztietan, norberak bere klubarekin parte hartzea", argitu du Igor Matek.

Hasiera batean, mutilentzako bakarrik sortu zuten Bardulia. "Nesketan bazezgoen talde bat, Bidasoa, talde mailako lehiaketetan nahiko maila ona ematen ari zena. Baina mutiletan ez. Mutiletan, Iban Agirre Kataluniara joan zen, Borja Iradier ere bai... Hemen sortzen zirenak, gutxi, eta bakoitza bere taldeetan sakabanatuta zebilen. Orduan, mutilentzako bakarrik, Bardulia sortu genuen. mutilak bildu eta talde bezala, Espainiako txapelketetara joateko. Erreleboetan lehiakortasun maila ona



Igeriketan ibilia da Igor Mate. Entrenatzaile bezala ere bai. Federazioko postua atera zenean, bulegoetara joan zen. Federazioaren kudeatzailea da gaur egun.

sortu zen. Proiektu hori geroz eta gehiagora joan da. Igerilarientzat oso proiektu erakargarria izan da. Gero, neskena ere atera genuen, neskek ere, mutilek bezala, denek elkarrekin joan nahi zutelako", dio.

Gipuzkoako selekzio bat izango balitz bezala, nabarmentzen diren igerilariak osatua da Bardulia. Aurtun, bi goierritar daude Bardulian: Ibon Soto lazkaotarra eta Ekain Perez de Arenaza ordiziarrak.

Baina arazoak sortu ziren berehala. "Espainiako Federazioak zerbait politiko bezala hartu zuen. Bertan

behera uzten saiatu izan dira. Beraiek aldaketak egiten zituzten beraien arautegian, eta guk beste batzuk egiten genituen beraien arautegira moldatzeko. Azkenean, inongo argudiorik gabe gelditu ziren eta orduan zer egin zuten? 2006an, Espainiako txapelketa batera joan, Almeriara, eta ez ziguten parte hartzen utzi. 25 igerilariak Almerian zeuden. Epaiketa daukagu orain zintzilik". Urrian izango da epaiketa.

Era horretan, proiektua ezin izan dute sortu zen bezala aurrera eraman. "Barduliakoak, orain, Bardulia

bezala jokatzeko dute txapelketa guztietan, eta ez guk hasiera batean nahi genuen bezala, Gipuzkoak eta Euskal Herriko txapelketetan norberaren talde bezala".

Hiru maila

Arazo horren ondorioz, proiektu horren atzetik beste zerbait behar zela ikusita, Foru Aldundiarekin, plan bat egin du Igeriketa Federazioak. "Hiru mailatan banatzen dugu igeriketa momentu honetan. Batetik, hasierako igeriketa deitzen dioguna. Gipuzkoako igerileku guztietan igeriketako kirol hastapena egiteko".

LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO
Tel.: 943 164 846
627 505 687 (instalakuntzak) - 670 471 106 (mantenimendua)

- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Mantenimendua
- Telekomunikabideak

AMEBI

Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

Bigarrenik, erdi mailako igeriketa. "Eskualde mailan talde indartsu bat eduki, igerileku guztietan lana egiten duena: zortzi-hamar eskualde horiek, Barduliako bazkide izanez. Honela zortzi-hamar egitura finko edukiko genituzke, eta ez orain bezala 25-28 klub. Batzuk, zerbait lortzen dute baina batzuk nahiko txikiak dira".

Hirugarren lekuan legoke, errendimenduko igeriketa edo Bardulia.

Igeriketa Lantzen

Plan horren barruan, Igeriketa Federazioaren artean eta Barduliaren artean, Igeriketa Lantzen enpresa sortu zuten. "Proiektu honi Foru Aldundiarekin forma eman genion eta planaren barruan, bost helburu nagusi daude. 2009-2010 denboraldirako".

● **Taldean egituratzea.** "Goierri hurrengo urtean jarriko dugu martxan. Ordizia, Lazkao, Beasain, Zumarraga eta Legazpin, talde bakarra edukitzea, indartsua. Momentu honetan, beasaindarrak kontra daude". Dagoeneko lau eskualde hasita daude: Tolosaldea, Oarsoaldea, Deba Goiena eta Buruntza aldea.

● **Partaidetzako igeriketa.** "Jende guztia lehiaketara bideratuta dago. Gaur egungo gizarteak, ez du lehiaketa bakarrik egin nahi

eta orain dela 25-30 urteko igeriketa. Nahiago du, partaidetzako beste igeriketa bat. Lehiaketera joan bai, baina horrenbesteko sakrifizioarik gabe. Kirola egin baina ez horrenbeste eskatu gabe. Igerilari bati ezin zaio eman dezakeena edo komenigarria dena baino gehiago eskatu. Klubetan hori gertatzen da eta igerilari guztiak zaku berean sartzen dira, norberaren helburuak kontutan hartu gabe. Igerilari baten helburua Joako Olinpikoetara joatea edo bizkar hezurra gaizki daukazulako igeri pixka bat egitea, denak berdin dira. Hori bereizteko plan honen helburua da, kirol ibilbideak zehaztea. Ibilbide horietan baldintza batzuk jarriko dira: zeintzuk egingo duten lehiaketako igeriketa eta zeintzuk egingo duten partaidetzakoa. Hori Eusko Jaurlaritzak daukan plana da. Eredu bat sortu beharko da partaidetzako igeriketarako baina asteen bi edo hiru egun nahikoa dira jende horrek daukan helburua be-

tetzeko. Eta ez gaur egun ezagutzen dugun lehiaketako igeriketa hori. Sortzen ari garen eskualdeko talde horien bidez bideratuko dugu lehiaketa".

● **Instalazioak.** "Instalazioak egokiak diren ikusi, eta zein behar dauden edo zein aldaketa egin behar diren ikusi. Aldundiak bere planak dauzka eta hor eragin nahi dugu".

● **Teknikariak.** "Irailean, gogo handiarekin hasten dira baina denboraldi amaieran, beraiekin ezin da hitz egin ere. Eta hori da, sortu den dinamikagatik. Saiatu behar gara, teknikariei egonkortasun bat ematen eta pixkanaka-pixkanaka, profesionaltasunera iristen. Orain dela zortzi urte, bizpahiru ziren profesionalak eta orain gehiago badaude igeriketaz bizi direnak. Gure asmoa da eskualde bakoitzean koordinatzaile bat jartzea, federazioarekiko harremana daukana eta dena koordinatuko duena".

● **Teknifikazio zentroa.** "Goi mailako igeriketaren-tzako, Gipuzkoako 50 metroko igerileku estali bakarrean, teknifikazio zentroa egin dugu. Goi mailako errendimendua egiten dutenek, bertan entrenatzen dute. Lehenengo urtea izan da aurten eta 65 inguru dabil-tza. Hurrengo urtetik aurrera, 40-45era mugatuko da bereiztea baita asmoa, eta norberak behar duena egitea pixkanaka-pixkanaka".

Diru iturriak

Proiektua aurrera eramateko dirua kontuez galdetuta, Foru Aldundiren babes baidute ere, ez dela nahikoa diote. "Horregatik, 2004. urte bukaeran egin genuena zen, Federazioaren eta Barduliaren artean Igeriketa Lantzen sortu. SL bat da. Eta bere asmoa da, kiroldegietan, igerilekuetan... ahal den lekuetan kudeaketak egitea, diru iturriak lortzeko eta igeriketan diru hori sartzeko. Igeriketa Lantzen-ek adibidez, duela bi urtetik, Ordiziako Majori kiroldegia kudeatzen du. Urretxukoa ere bai. Legazpiko pusketa bat ere bai, Elgoibarkoa... Hortik aurrera herri txiki batzuetan gauza gehiago ere baditugu, Itsasondon adibidez. Udan, kanpoko igerileku pilo bat kudeatzen ditugu, iaz 20. Begirale, sorrospen, igerileku manteni-mendua... emanaz. Ordiziaren kasuan, bi jatetxeak

Arazoa: geroz gehiago sendotu eta gure proiektua handiagoa den heinean, gure klubekiko distantzia geroz eta handiagoa egiten da. Beraz, lortu behar duguna da klubak plan hauetan sartzeara.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

AUSO EGI

ERREFORMAK

- ✖ Tximini eta ekonomiak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak

☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

ere kudeatzen dituzte. Ateratzen dugun dirua, igeriketarako izaten da”, zehaztu du Matek. Gipuzkoako klubei baliabideak eskaintzea ere bada Igeriketa Lantzen helburua.

Igeriketa eredu

Gipuzkoako igeriketa birmoldaketa handia ari da izaten beraz. Beste kirolentzako eredu izango ote den galdetu diogu Igor Materi. “Aldundiak badaki gu egiten garen gauza batzuk beste kirol batzuetara eramatekoak direla. Iaz areto-futbolean egin zuten. Guk Barduliarekin egiten genuen bezala, Gipuzkoako klub guztien artean Gipuzsala sortu dute, liga altuetan parte hartzeko. Donostian teknifikazio zentroarena ere eredu bezala hartu da eta orain Tolosan, txirrindularitzakoa jarri behar dute”.

Dena den, hasiera besterik ez dela dio. “Hastapeana egin dugu eta ur jardueren unibersilazazioa egin behar da orain. Oso proiektu anbizioa da, lau urte iraungo duena eta helburua da, Gipuzkoako igerileku guztietan metodologia berdinarekin lan egitea, homologazio batzuk lortzea, datu base bat edukitzea... Aldundiak erronka hori hartu du bere proiektu handi bat bezala eta hori guztia lantzen ari gara”, dio Matek.



Metodologia berria Ordizian

Ordiziako Majori kiroldegian, igeriketaren arloan hasi dira aldaketak nabaritzen. Igeriketa irakasteko metodologian adibidez. “Azken bi urteetan Ordizian, igeriketako planteamendu guztia aldatu dugu eta hemen lortu nahi duguna, beste leku batzuetan ezartzen hasi gara, ikusi baitute oso ondo funtzionatu duela. Oso garrantzitsua izan da guretzat”, adierazi du Igor Mate, Gipuzkoako Igeriketa Federazioaren kudeatzaileak.

Eurek sortu dute metodologia, beraien esperientziaz baliatuz. “Inon ez dago ezer, geuk sortu dugu metodologia, klaseak ikas-unitateetan banatuz. Lehenengo fasea jorratzen ari gara eta beste leku batzuetara eraman nahi dugu”, gaineratu du.

Hiru hilabeteko prozesua

Metodologia berria edo igeriketa ikasteko prozesuan egindako aldaketak zeintzuk diren jakin nahi izan dugu: “lehen 20 eguneko ikastaroak ziren; 20 egun jarraian eta hor bukatzen zen. Igeriketa ikastea zen helburua eta itotzeko arriskurik ez geneukanean, igerilekutik alde egiten genuen. Orain, irakaskuntzako joera da, uretan, askoz ere hobeto moldatzea umeak, trebeagoak izatea, abilezia aldetik landu. Lehen, igeriketako estiloan, teknikak errepikatzen ziren. Orain ez. Orain jokoen bidez, abileziak lantzen dira. Bestetik, 20 eguneko ikastaroa, gizartearen planteamenduen aurka doa. Orain jendeak ikasturte osorako jarduerak nahi ditu. Guk hiru hiru-hilabetekoetan banatzen dugu urtea baina ikusten duguna, da %80ak baino gehiagok hiru hiru-hilabeteak errepikatzen dituela. Urte osoko planteamendua egiten baita. Hori estruktura aldetik baina edukien aldetik, askoz ere joko gehiago. Lehenengo beste abilezia batzuk landu behar dira uretan, igeri ikasteko”, azpimarratu du Itsasondon bizi den beasaindarrak.

ZAHARRA • BERRI

IGELTSEKITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida

943 180 372

651 700 439

aiakoerrota@terra.es

ATAUN




Eraikuntzak

Gremioen koordinaketa

Erreforma orokorrak

Teilatuak



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

2007-2008 Esperientzia eskolako 7. garren promozioaren amaiera

Urte honetan, 13 pertsonak amaitu dute Esperientzia eskolako ikasturtea. Ikasle hauek Ordizia, Beasain, Zumarraga, Zaldibia eta Segura, hau da, Goierri zein Urola Garaiko eskualdekoak.

Zer daukate amankomunean hauek guztiak? Ikasturtea egiteaz gain, guztiak 50 urte baino gehiagoko emakume eta gizonezkoak dira, kezka desberdinekin eta bere denbora aprobetxatzeko nahiarekin. Bakoi-tzak berarekin bizi esperientzia desberdinak daramatza, hala nola, familiakoak, lanekoak eta bizian zeharrekoak. Pertsona guzti hauek ikasketa proiektu honetan elkartu dira eta gai desberdinak garatzeko aukera izan dute. Landutako gai guztiek dute oinarrian pertsonaren aberastea eta inguratzen gaituen errealitatea ezagutzeko erraztasunak lantzea.

Esperientziaren eskola ez da ulertu behar betiko eskola bezala: asistentzia ez da nahitaezkoa, apunten ez da hartu behar, informazioa erraztu egiten baita eta noski, ez da azterketarik egin behar.

Balorazioak

Ikasturte bukaeran beraien esperientzia kontatzeko aukera eman zaie ikasleei, zergatik izena eman zuten eta nola baloratzen duten ikasturtea.

Esperientzia eskolari buruz oso ondo hitz egiten en-



tzun zuen Trinik, "baina ez naiz ohartu ze punturaino den garrantzitsua nik neronek probatu dudana arte. Benetan oso ona iruditu zait". Atseginaz izateaz gain, "ikasi egin dut, eta ikaskideekin nahiko ondo erlazionatu naiz". Landu dituzten gaiak oso onak eta interesgarriak iruditu zaizkio Triniri.

Hasieran ez zuen uste horrelakoa zenik. "Zaila da deskribatzea. Jende askok ez daki benetan zer den, horregatik da garrantzitsua jendeak probatzea". Eta pertsonalki beldurra zuela aitortu du Trinik, "maila batera ez iristea: taldean ni baino gehiago zekien jendea aurkitzea... baina ez da horrela izan daukadana eman dut eta asko eman didate aldi berean".

Miguelek garbi zuen enpresatik jubilatzen zenean, bere bizitza ikasketara zuzendua izango zela. Espe-

rientziaren eskola kokapen bezala hartu du, gauzak egiten jarraitzeko sarrera moduko bat.

"Zerbait egin gure adineko pertsonen parte hartu dezaten. Eremu zabal bat dago lantzeko eta gure esku dago, horregatik, gauza guztiak bezala bizitzan hasten den prozesu bat da eta jarraitzen doa", dio Miguelek.

Egunkarian ikasturte amaierako argazkia azaldu zen eta Zumarragako jendea ikusitakoan animatu zen Jose. Bere ustez ez da berdina urte osoan zehar irakasle batekin egotea edo eta egunero irakasle bat edukitzea, saio desberdinak emanez. "Izugarritzko kalitatea, gainera egokitua dago aldaketa fisiologiko eta psikologikoei aurre egiteko, ez da berdina 30 urte izatea, 40 edo 60 urte izatea, aldaketa hauetara ere egokitu egin

Matrikula zabalik

2008-2009 ikasturtean parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago. Izena emateko edo informazio zabalagoa izateko Goiekira (943161537) deitu.

behar gara. Zaharra ez sentitzeko. Ni duela 30 urtetik nago konprometituta ezinduen zentro batean eta horrek balio izan dit taldean lan egiten, errespetatzen".

M^a Carmen hasieran zer den ikustera etorri zen. "Talde zoragarri bat aurkitu dut, atseginaz, ikasketak landu eta gauza asko ikasi ditut, baita sukaldaritzaz ere! Denetatik. Poza, bakea, momentu onak, zoragarriak! Jendea esango nioke ez dela denbora asko, eta iruditzen zaiguna baino askoz hobe dela". Bere ustez merezi du antolatzeak Esperientzia eskolara joateko.



kutxa

Iñaki Dorronsoro ataundarra: Gipuzkoako matematikari Olinpikoa

Iñaki
Dorronsoro. 14
urte.

**Ataundarra,
Astigarragakoa.
Beasaingo Loinazpe
ikastetxean 2. DBH
bukatu berria du.
Gipuzkoako
matematika
olinpiadan parte
hartu eta urrezko
domina lortu du.
Euskal Autonomia
Erkidegokoa,
seigarrena izan da.**



Zer nolako lehiaketa mota izaten da Matematika-ko Olinpiada?

Eskola mailan boluntarioak aurkeztu ginen eta kontrol edo azterketa bat egin genuen. Hortik bi edo hiru onentsuenak, Gipuzkoako txapelketara joan ginen. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako txapelketetatik 12 onenak, Euskadiko txapelketarako sailkatzen dira. Hemengo bi onenak, Murtziako Espainiako mailako Olinpiadara sailkatzen dira. **Gipuzkoan txapeldun izan zinen.**

Bai, lehenengoa izan nintzen bai. Euskadiko txapelketan, berriz, seigarren egin nuen.

Zein ariketa mota egin behar izaten dira?

Matematika erabili behar da, baina buruketak jartzen dizkizue, pentsatzeko izaten da gehiago: planteatzen zaizkizun problemak pentsatu eta nola konponduko

zenituzkeen. Emaizta bilatzeko, matematikako ariketa batzuk egin beharrean dago.

Ariketaren bat, adibidez?

Batean, baldosa bat zegoen. Erdiko baldosa, txuria zen eta ingurukoak, beltzak. Hurrengo ilaran zenbat baldosa jarri behar ziren jakiteko formula aurkitu behar zen.

Beste batean, karratu bat zegoen. Barruan borobil bat eta hexagono bat zegoen, borobila baino pixka bat handixeagoa zena, eta bere azalera bilatu behar zen.

Kalkulagailua eramaten uzten al dute?

Bai. Kalkulagailua, konpasa, erregelek... denetik eramaten uzten dute.

Burua hotz eduki behar-ko da.

Hala da baina esan errazago egiten da. Irakasleak esaten zigun lasai egoteko, baina momentu horretan lasai egotea kosta egiten da.

Prestaketa bereziren bat egin duzu?

Ez. Irakasleak ekarri zidan

interneteko helbide bat, beste urteetako Olinpiadetako ariketak agertzen direnak. Baina denboraz justu ibili nintzen, tartean azterketaren bat ere banuen eta. **Zer moduzko esperientzia izan da?**

Aberasgarria izan dela uste dut. Proba eginda, zerbait lor daitekeela ikusten da.

Zenbakien artean gustura sentitzen zara?

Ez dakit. Gehiago da, proba egin eta zortea baldin bada-go ondo.

Zein izaten da saria?

Lehenengo lauek, hilabete-ko beka izaten dute, Europako edozein herrialdeetako hizkuntzaren bat ikaste-ko. Bosgarrenak eta seigarrenak, argazki-makina digitala. Gaintontzekoek, kalkulagailu digitala.

Dena den, letren artean ere ez zara gaizki moldatzen. Coca Cola ipuin lehiaketan ere sariren bat irabazi duzu.

Saiatuz gero beti lortuko da zezoz. Joaten baldin bazara pentsatuz, saiatu egin behar

naiz, zerbait aterako da. Niretzat hori da gauzarik garrantzitsuenak, saiatzea.

Ikasketak bideratzeko garaia ere iritsiko zaizu laster.

Oraindik urruti bezala ikusten da eta gero uste baino lehenago iritsiko da.

**Letretatik edo zenbakieta-
tik joango zara?**

Ez dakit. Gustuz, letrak nahiago ditut. Filosofia, poesia... baina hortik jateko ezin baita ateratu. Orduan onena, ingeniariartzaren bat ikastea izango da eta poesia eta horrelakoak, denbora librerako uztea; lehenengo, mantenua baita.

Gazte gehienek, gauzak tristeak idazten dituztela esaten dute. Zuk?

Zer sentitzen duzun da kontua. Oso pozik baldin bazaude, ez dut uste heriotzaz idatziko duzunik. Niri behintzat hori pasatzen zait. Poesia bat idazterakoan, zein gorputzaldi daukadan arabera idazten dut. Triste banago, tristeia izango da eta bestela ez.

Ekainaren 28an, Legorretan


Sustraiez Blai: Munduko Kulturen Topaketa

Inoiz baino goiztiarragoa da Sustraiez Blai: ekainaren 28an alegia. Legorreta izango da aurtengo eszenatokia. Saioa Garin legorretarrak irekiko du kontzertua. Jarraian etorriko dira, Gose, Fundamental eta Fanfare Vagabontu. Amaitzeko, Max Pashm Dj-a. Sarrerak aurrez eros daitezke, 15 eurotan, Beasainen eta Ordizian. Munduko Kulturen VIII. Topaketa hastera doa.

Sustraiez Blai Kultur Elkar-tearen helburu nagusia, beste kulturak hobeto ezagutzen lagunduko duten ekintza kulturalak aurrera eramatea da. Horretarako, zortzigarren urtez jarraian, Munduko Kulturen Topaketa antolatu dute. Nahiz eta beste ekintza osagarri batzuk ere izan, musika izaten da protagonista nagusia. “Inguratzen gaituen munduaren ikuspegi baikorra ematen saiatzen gara, beren kultura garatzen ari diren herriak egon badaudelako eta beren izaera dela medio, gauza asko erakuts diezazkigutenez gero, bizipe-

nak elkartrukatu nahi ditugulako. Truke horretan, uste dugu musika dela herri horiek ezagutzeko bideetako bat. Sustraiek dituen musika, gure belarrietara ekartzen duten artisten jatorria, ohiturak eta usadioak gogoratzen dizkiguna. Horregatik jarri ditugu harremanetan Euskal Herriko musika eta estatu barrukoa nahiz kanpokoa”, diote Sustraiez Blai-koek.

Aurten, Legorreta izango da munduko kulturen topalekua. Ekainaren 28an izango da kontzertua, Harripila kiroldegian, gaueko 10etik aurrera. Iaz bezala, au-



rez jarriko ditugu sarrerak salgai, 15 eurotan. Ordizian, Goierriko Baratzan eta Beasainen Irizar tabernan. Lau talde izango dira Legorretan. Bakoitzaren ezaugarrien berri eman digute antolatzaileek. Itzulerarako, autobus zerbitzua egongo da.

Orain arte, urria edo azaro aldera izaten zen Sustraiez Blai. Aurten, inoiz baino goizago dator, nahiz eta urrian, Goiekirekin elkarlanean antolatutako Goierri Koloreren barruan, beste hainbat ekintza izango diren. “Gure jaialdi mota udakoa da eta beti egin izan

dugu data horietan baina diru arazoengatik ez da posible izan. Aurten aurrekontuak onartzen zuelako, ekainera aurreratzeko aukera izan dugu eta Legorretak ere horrela nahiago zuen”, dio Josetxo Sastre, Sustraiez Blai elkartearen kidea. “Aurten jaialdiaren data aldatu dugunez, Goiekiri oso gaizki zetorkion data hau eta bere asmoa urrian Goierri Kolore berriz antolatzea da. Eta guk interesgarria eta osagarriak ikusten ditugu, erabaki salamonikoa hartu dugu: kontzertua ekainera aurreratu bai, baina gainerrako ekintza paraleloak (fil-

IPK Oihalak
Haurdunaldiko arropa
Ume jantziak

Tel.: 943 08 65 66 Oriamendi 27 BEASAIN

mazda ☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
Bikar, S. A. BEASAIN



Fun-Da-Mental

Etengabeko aldaketan ari den taldea da hau, 1991n sortu zena eta talde-buru den Aki Nawaz-en hitzetan, helburu jakin bat duena: guztion arteko tolerantzia eta errespetuzko zubiak eraikitzea. Fun-Da-Mental taldearen izaera borrokalaria da oso, 90eko hamarkadan Asian Dub Foundation taldearekin batera (talde hau ere Sustraietz Blai jaialdian izan zen, 2006an) angloasiar musikaren joerarik militante eta konprometituena erakutsi zuena.



Saioa

Badira urte batzuk Legorretako abeslari hau konposatzen eta musikaren munduan bere burua ezagutzera ematen saiatu zela, baina iaz erabaki zuen bazela garaia bere konposizioak erakusteko eta bere izena bezain saiatua izateko. Horrela iritsi ziren Gipuzkoako Moonpalace records zigiluraino bere lehen lana osatuko zuten abestiak, 'Particular land' izeneko 6 abestiko diskoan bilduak. Maiatzean, berriz, bigarren lana etorri da, eta oraingoan hamaika abestik osatuko dute diskoa.

ma, erakusketa...) urrian antolatuko ditugu Goierri Koloreren barruan", gaineratu du Sastrek.

Kontzertuari buruz galdetuta, "aurten, kalitateari dagokionean, ediziorik onenetarikoa da", nabarmendu dute Sustraietz Blai elkartetik.

Fundamental

"Fundamental izango da zortzi edizioetan errepikatu den taldea. Kontuan hartu aurtengo edizioa kontatuta, 34 talde etorri direla gure

jaialdira. Eta bi arrazoigatik etorriko da: herriak eskatzen duelako eta Legorretako pakistandar komunitatea txikiari keinu bezala".

Saioa

"Saioak, egon beharra zeukan. Zeresan handia eman-go duen bakarlaria da. Gu

beti saiatu gara Sustraietz Blain Goierriko taldeak sartzen. Luis Camino, Aitor Furundarena, Kolpez Kolpe Experience eta Briganthya. Badakigu ikuskizunak duen tonoa eta berak eskaintzen duenak talka egiten dutela gure jaialdiarekin, baina sarrera bezala aurkeztuko dugu eta bera izango da kontzertua hasiko duena".

Gose

"Gose, trikiaren eta teknoaren nahasketarekin bide berrira ireki du, talde gehiagok

Ekainaren 28ko egitaraua

12:00etan: Herriko pilota txapelketaren finalak.

15:00etan: II. Olinpiadetako bazkaria Bilkoin K.K.E.en, 'Bonberoenea' txarangak alaitua.

19:30ean: Sardina eta sagardo dastaketa plazan.

22:00etan: Kontzertua Harripila kiroldegian: Gose, Saioa Garin, 'Fun'da'mental' eta Fanfarre Vagabundo.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak

Filtroak, olioak, engrasea

Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



Gose

2004an hasi zen talde moduan jo-tzen Gose, nahiz eta denbora de-zente behar izan duen gaur egun hain ezaguna den taldea bihurtze-ko. Hainbat arrazoi izan dira tarte-an, esaterako, Eutsi! filmaren abesti nagusia konposatu izana edota Car-linhos Brownnek bere azken diskoa-ren aurkezpenarako egindako biran hasierako taldea izatea. Bere ezau-garririk nabarmenena da oso tradi-zionala den euskal musika tresna bat, trikitixa, hain zuzen, musika elektronikoarekin nahasten dutela. Emaizta, ezinbestean, harrigarria da.



Fanfare Vagabontu

Fanfare Vagabontu taldeak Marsei-llako Festival du Soleil jaialdian aur-keztu zuen bere burua lehen aldiz taula gainean, 2005eko ekainean, taldeko buru den Ghitsa Iorgaren eskutik. Taldea zortzi musikarik osatzen dute: zazpi letoik eta per-kusionista batek: Marseillako Rrom komunitateko kidea, Ghitsa Iorga, Errumaniako Moldaviatik etorritako zazpi lagunekin elkartu zen taldea osatzeko.



Max Pashm

Max Pashmen soinua Greziako, Balkanetako, ijitoen eta kleizmer musiken arteko nahasketa da, errit-mo elektronikoekin batera eta Max Pashmek berak modu digitalean manipulaturakoa. Oraingo, Live DJ set moduan aurkeztuko du bere bu-rua, nahiz eta talde formatuan ere lan egiten duen. 90eko hamarkada-ren bukaeran eman zen ezagutzera Max Pashm, bere lehenengo disko-ari esker: Sony music-ek 1997an ka-leratu zuen 'Weddings, Barmitz-vahs&Funerals'. Ordutik hona, mundu osoan zehar bidaiatu du, bere lan ona erakutsiz eta worldfu-sion musikan aintzindari izan da.

jarraitzea nahiko nukeena. Sinestezina iruditzen zait nahasketa hori egiten ez duen talde gehiago egotea, edo txalaparta eta teknoa. Entzungabea da. Berdina gertatzen da bertsoarekin eta raparekin. Oraindik jo-rratu gabeko bideak dira”.

Fanfare Vagabontu

“Fanfare Vagabontu. Iaz tal-de magrebiar bat ekartzeko baldintza jarri bagenion gu-re buruari, Goierriko biga-rren komunitaterik handie-na delako. Aurten keinua, komunitate handiena den errumaniarrari egin nahi

izan diogu. Honela dator Marsellako ijitu banda au-tentikoa”.

Max Pashm Dj.

“Bukatzeko, dj bat. Balkan aldeko musikaren eta elek-tronikoaren nahasketa eta jaialdiko ezustekoa izan

daiteke”.

Esker ona

Legorretako Udalari eta he-rriari bereziki eskerrak eman nahi dizkiete Sustrazek Blai elkartearekin eta Mun-duko Kulturen Topaketare-kin bat egin dutelako.



Garbiketa
Zerbitzu
Integrala

Enpresen mantentzea

Tel./Faxa: 943 188 194 Mug.: 696 999 117
Kale Nagusia, 25, 1. esk. IDIAZABAL

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

LANA

eskaerak

Beasainen zerbitzaria behar da astelehenetik ostiralera, eguerditan. 943889252.

Zerbitzaria behar da larunbat gauetarako. Urte osoa. Abuztua jai. 618930021.

Begiraleak behar dira uztailan, goizetarako. 696650971.

Lazkao San Benito Ikastolako Hizkuntza Eskolak ingeleseko irakaslea behar du 2008-2009 ikasturterako. Bidali CV: vhigareda@sanbenito.ikastola.net

Harrikoa egiteko pertsona bat behar da larunbat gauetarako. 615700408.

Beasainenumeen zaintzan eta etxearen arduran eskarmentua behar duen pertsona behar da. 615758441.

Ileapaintzailea behar da Tolesaldeko ileapaindegi baterako. Lanaldi osoa eta kontratu mugagabea. Baldintza eta ordu-tegi onak. 616648255.

Seguran, haur bat zaintzeko pertsona bat behar da. 695734032.

eskaintzak

Neska gazteak, etxeko lanak egiten eta umeak zaintzen lan egingo luke astelehenetik ostiralera. 697969774.

Matematikako ikasleak, klaseak eskaintzen ditu DBH eta Batxilergoentzat, euren etxetan. 635203958.

Adinekoak zaintzen, etxeak edo atariak garbitzen... lan egingo nuke. 09:00etatik 16:00etara deitu. 628217527.

Neska gazteak, umeak edo helduak zaintzen, edo garbitzen lan egingo luke. 606722876.

Psikologian lizentziatuak, uztailaren lehen hamabostaldian, umea, elbarri nahiz helduak zainduz, ingelese irakatsiz, nahiz ostalaritzan lan egingo nuke. 24 orduak prest. 665702296.

Ingelesko klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. Office, korreo elektronikoa, photoshop, argazkiekin bideoak egin... 679556586.

Hemendik aurrera,

iragarki labor guztiak
www.goierrikohitza.iragarkilaburrak.com
helbidean eta
ostiralero zure etxean

ETXEBIZITZAK

errentan hartu

Familia arduratsua, erreferentziekin, alokairuan pisua hartuko luke Goierri aldean. 943088208 - 660966944.

Nafarroako neskak, pisua edo gela hartuko luke errentan, Goierri. 652065960.

Baserrria hartuko genduke errentan, Goierri aldean. 635202146.

salgai

Ataun. Eraikuntza berria. 2 logelako pisua. Trastelekua. 194.391 euro. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Beasain. 2 logelako pisua salgai. Berritua. 943187307.

Beasain. Nafarroa etorbidean, pisua salgai. 2 logela. Sukalde/egongela eta gas naturaleko berogailua. 636733159.

Beasain. Aukera ona. 2 logelako etxebizitza. Igogailuarekin. Bizitzen jartzeko. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Idiazabal. Eraikuntza berria. 2 logelako etxebizitza. Sukaldea, jantzia. 261.440 + Beza. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Lazkao. Erdigunean pisua salgai. bi logela, egongela (su bajearekin), sukaldea eta komuna. Guztiz eraberritua. Prezio interesgarria. Aukeran, garaje itxia etxe azpian. 658745378 - 6587453377.

Lazkao. Hirigoien eta Jose Lasa kaleetan, 2 eta 3 logelako etxebizitza salgai. Igogailuarekin. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Lazkao. San Jose auzoan, 60 eta 75 m²ko etxebizitza. 943883739.

www.lamylazkao.com/inmo.

Lazkao. Elosegi kalean, erai-kuntza berriko duplexa salgai. Estrenatzeko. 943883739.

www.lamylazkao.com/inmo.

Lazkao. Elosegi kalean, 2 logelako etxebizitza. Bizitzen jartzeko. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Lazkao. San Prudentzio auzoan azken adosatua salgai. 4 logela, terraza eta garajea. Maiztean entregatzen da. 943883739.

www.lamylazkao.com/inmo.

Lazkao. Eraikuntza berria. 1, 2, 3 eta 4 logelakoak. Orobioren eta San Prudentzio auzoan. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Ordizia. Aita Urdaneta kalean, 2 eta 3 logelatakoak, berri-tuak eta argitsuak. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Ormaiztegi. 2 logela. Guztiz eraberritua. 943883739.

www.lamylazkao.com/inmo.

Zumarraga. Etxea salgai, Esteban Orbegozen. 943082537 - 676297910.

GARAJEAK

salgai

Lazkao, erdigunean, garaje itxia salgai. 658745378.

IBILGAILUAK

salgai

Citroen Xsara 1.9 TD salgai. 98koa. Egoera ona. 656795356.

BESTELAKOAK

salgai

Bebe confort markako haur aulkia salgai, erdi berria. 943082537 - 676297910.

Eskulan tailerrera altzariak salgai: mahaiak, aulkia, aulki txikiak eta astoak. 676299257. Erantzungailuan utzi mezua.


Jane markako haur aulki bi-koitz konpletoa salgai. 9 hila-betez erabilia. Egoera onean. 300 euro. 610047505.

Kanping gurdia salgai. Egoera onean. 943187594 - 626689173.



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zko: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPIZKOA)



Beasain

San Pedro jaiak Arriaranen

Ekainak 28, larunbata:

12:00etan: Suziria eta buruhandiak.

14:00etan: Herri bazkaria, Millan Telleria eta Angel Larrañaga bertsolariekin.

Ondoren: Dantzaldia Kupela taldearekin.

17:00etan: Mus eta puntu txapelketak.

21:00etan: Herri afaria, bertsolari eta trikitalariekin.

Ekainak 29, igandea:

11:00etan: Suziri eta buruhandiak.

11:30ean: Meza nagusia Loinazko abesbatzarekin.

12:00etan: Hamaiketako.

13:00etan: Pilota partidak.

16:00etan: Haur jolasak eta pailazoak.

18:30ean: Herri kirolak: aizkora.

21:00etan: Herri afaria. Ondoren dantzaldia Xapre taldearekin.

San Pedro jaia Ezkiagan

Ekainak 28, larunbata:

11:00etatik 13:30era: Puzgarriak Oriako pasealekuan.

15:30etik 18:30era: Puzgarriak Oriako pasealekuan.

19:00etan: Buruhandiak eta txistulariak.

20:00etan: Sardina eta txistorra jana.

22:00etan: San Pedro sua, Mariaratz kalean, Villa San Luis azpian.

Zaldibia

'Gezurra gezurraren gainean'

Ekainaren 20an, Orratz Kultur elkartearen eskutik, 'Gezurra gezurraren gainean' antzezlan izango da, gaueko 10,30etan, herriko antzokian.

Lazkao

Abesbatzarako kasting-a

Lazkaoko Xanbe abesbatza, 10-16 urte bitarteko gazteek osatzen dute. Bertako kide izan nahi dutenentzat kasting-a antolatu da. Ekainaren 28an izango da. Goierri eskualdean bizi diren 10-16 urteko haur eta gazteek izango dute aurkezteko aukera. Elkartzeko lekua eta ordua jarrita dago: goizeko 11etan Lazkaoko udaletxeko arkupetan. Ondoren kasting-a ikastolan gauzatuko da. Musikako ezagutzak, instrumentua (ez da ezinbestekoa) kontuan hartuko da. Argazkiarekin batera, abestiren bat prestatuta eramatea eskatzen da.

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ONE MENDIZABAL
ILEAPAINDEGIA

Emakumezkoen nahiz
gizonezkoen ileapaindegia
Depilazio laser medikua
Zutikako solariuma



Astelehen goizetan zabalik

943 18 04 92
Helbarrena, 24
ATAUN

IÑAKI ARIN

aseguruak



943 888 702

Oriako pasealekua, 20

BEASAIN

Ordizia

San Joan jaiak Otegi-enea eta Majori auzoan

Ekainak 20, ostirala:

18:00etan: Suziria eta Haur Krosa.

19:30ean: Buruhandiak.

20:30ean: Auzo afaria.

20:30ean: Karaokea.

Ekainak 21, larunbata:

10:30ean: Suziria.

11:00etan: Marrazki lehiaketa.

11:00etan: 2. Sukaldaritza txapelketa.

12:00etan: Pailazoak.

13:30ean: 2. Sukaldaritza txapelketaren sari banaketa.

16:30ean: Haur jolasak.

18:00ean: Euskal dantzak.

19:30ean: Buruhandiak.

22:30ean: Dantzaldia.

23:30ean: Mozorro lehiaketa.

Ekainak 22, igandea:

10:30ean: Suziria.

12:00etan: 2. Tortila lehiaketa.

13:00: Oroith txiki abesbatzaren saioa.

13:30: 2. Tortila lehiaketaren sari banaketa.

16:30: Toka Lehiaketa.

18:30: Gorriti eta bere animaliak.

20:30ean: Buru handiak.

Ekainak 23, astelehena:

19:30ean: Sardina jana.

22:00: San Juan Sua.

Ataun

Santa Ixabel jaiak Aian

Ekainak 28, larunbata: Gazte Eguna:

19:00etan: Sagardo eta Sardina dastaketa.

21:00etan: Gazte Afaria.

24:00etan: Kontzertua: Surfin Kaos eta Esne Beltza.

Ekainak 29, igandea:

12:00etan: Pilota Partiduak: **Lehenengo partida:** Herriko gazteak: Munduate eta Arratibel, Albisu eta Arratibel en aurka. **Bigarren partida:** Afizionatuak banaka.

17:00etan: XXIII. Dantzari Txikien Txapelketa Muga-tua.

Ondoren: Herri Kirolak: Arria II eta Mendizabal I, Aier-be I eta Agiteren aurka.

Uztailak 1, asteartea: Haurren eguna:

16:30ean: Ume jolasak.

Ondoren: 'Bihar' txotxongilo taldeak aurkeztuta: 'Ipuin Magikoa'

21:00etan: Herri Afaria.

11:30ean: Laket taldearekin erromeria.

Uztailak 2, asteazkena: Santa Isabel eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Otoak dantza taldearen erakustaldia.

Ondoren: Luntxa.

Jarraian: Bertsolarien saioa: Aitzol Barandiaran eta Unai Muñoa. Trikitilariak: Santi eta Katxo.

14:00etan: Herri Bazkaria bertsolari eta trikitilariekin.

Arratsaldean: Toka Txapelketa. Bitartean bertsolarien saioa.

PSIKOLOGI KLINIKOA


Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239



Lurrindergia eta opari gaiak



ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhua dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxue:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

UDA 2008

ESKOLA LAGUNTZA:
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak
Errekuperazioak eta ikasketa teknikak

UNIBERTSITATE MAILA:
Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

INFORMATIKA, MEKANOGRFIA

INGELERA IKASTARO TRINKOA

BERRIA! FRANTSESA

Joan Iturralde, 5 solairuartera - BEASAIN - www.ikaskide.net
943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462

MATRIKULA 2008-2009
IREKITA



Gabiriako antzerki taldea 1947. urte inguruan

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Joxe Oñatibia (Aranetxiki), Fernando Azarola (Arane Haundi), Patxi Izuzki-za (Jauregi) eta Patxi Urkiola (Aunditegi).

Beheko ilaran: Bittor Oria (Gabirizartxiki) eta ezezaguna.

Gure helburua,
zure ongizatea.

XVIAI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Kale Nagusia 6, Idiazabal 943 18 74 94
xuhaifisioterapia@gmail.com

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

Dolpo – Nepal



Zatoz

**Himalaiako herrialde
politenetako bat
ezagutzera**

Mendi ikusgarriak:
Daulaghiri
Annapurna

Dolpoko bizimodu
zail eta gogor
hori sentituz

Abuztuaren 3tik 25era

Joxe Ramon Agirre – Marron
Tfnoa. 615 781 287



ALTAMIR

JATETXEA

Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...

hau, kontzeptu eta sententzio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapora eta ukituz goza dezazuen.

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net



faktore

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

ACDA

ANTONIO DELGADO DISEINU ALTZARIAK
SUKALDE GUNEA

Jose Miguel Iturrioz, 16 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T/F 943 027 626



Perspektiba, usaimena,
platerak, estetika, ura,
aulkiak, txipiroiak, lerroak,
hozkailua, lorea, koloreak,
mahatsak, edalontziak,
bolumena, mantala, labea,
dastamena, geometria,
botila, tomateak, texturak,
labanak, irudia, azpizuna,
simetria, perrexila, gatza,
kazola, gozamena.

Kontzeptu eta elementuak
uztartuz sortutako guneak

DISEINUA SUKALDEAN



ACDA